




Debagoiena

Arantzazuko
Santutegia

Debagoiena





Arantzazuko Santutegia 3. orrialdea

Zer ikus dezakezu Arantzazuko Santutegian? 4. orrialdea

Zer ikus dezakezu Arantzazuko Santutegian? 5. orrialdea

Arantzazuko santutegiaren planoa 6. orrialdea

1. Turismo-informazioko gunea 7. orrialdea

2. Arantzazuko basilikaren fatxada 8. orrialdea

3. Basiliakaren barrualdea 10. orrialdea

4. Kripta 11. orrialdea

5. Parke Naturalaren Interpretazio Zentroa 12. orrialdea

6. Misterioa 13. orrialdea

7. Gomiztegiko bide irisgarria 14. orrialdea

Irisgarritasuna Arantzazun 15. orrialdea





Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko santutegia

Ama Birjinari eskainia dago.

Santutegia leku garrantzitsua da,

non pertsonek

Ama Birjinari otoitz egiten dioten.

1468an, Rodrigo de Baltzategi

izeneko artzain batek

Ama Birjinaren irudi bat aurkitu zuen

landare arantzatsu batean.

Landare arantzatsua arantzak dituen landarea da.

Ordutik, Arantzazuko Santutegia

leku sakratua da

eta kristaudentzat oso garrantzitsua da.

Arantzazuko Ama Birjinaren eguna

irailaren 9an ospatzen da urtero.





Non dago Arantzazuko Santutegia?


Arantzazuko Santutegia Euskal Herrian dago,

Oñati izeneko herri batean.



Santutegia landare arantzatsuz inguratuta dago.

Horregatik, Santutegiak Arantzazu du izena.





Zer ikus dezakezu Arantzazuko Santutegian?

Gaur egungo santutegia

1950ean hasi ziren eraikitzen.

Behin baino gehiagotan

berreraiki behar izan zuten

3 sutetan erre zelako.

Francisco Javier Sáenz de Oiza

eta Luis Laorga

arkitektoek diseinatu zuten santutegia.

Santutegia honako hauek osatzen dute:

- Estilo garaikideko hainbat eraikin.

Hau da, forma geometrikoz


eta materialez eginak daude,

hala nola harriaz, beiraz


edo burdinaz, besteak beste.

Eta inguruko naturaz gozatzeko

eta paseatzeko espazio naturalak.



Arantzazuko Santutegia Debagoiena



1 Turismo-informazioko gunea

Informazio puntuan zalantzaren

bat izanez gero lagundu ahal dizuten.

pertsonak aurkituko dituzu.

Mapak eska ditzakezu eta bisita gidatuak egin.

Honen bidez jar zaitezke harremanetan:

- Telefonoa: 943 796 463
- Posta elektronikoa: infoturismo@debagoiena.eus
- Webgunea: www.turismodebagoiena.eus



2 Arantzazuko Basilikaren fatxada

Arantzazuko Santutegiko **basilika**

1950 eta 1955 artean eraiki zen.

Basilikak oso artelan garrantzitsuak ditu.

Basilika: Basilika bat eliza handi bat da. Garrantzitsua da historia edo erlijio kristauarentzat.

Basilikaren fatxada

Jorge Oteiza eskultoreak diseinatu zuen.



Fatxadan oso obra garrantzitsuak daude:

- Pietatearen eskultura

Jorge Oteiza eskultoreak egin zuen.



- Azpian, 14 apostoluak irudikatzen dituen eskultura bat dago.

Apostoluak Jesusen lagunak izan ziren,
eta Jesusen irakaspenak zabaltzen zituzten.



- Eskultura honen azpian burdinazko 4 ate daude.

Ate hauek Eduardo Chillida artistak diseinatu zituen.



3 Basiliaka barrualdea

Basilikaren barrualdea egurrez estalita dago.

Basilikaren barruko diseinuak

kanpoko paisaiak gogorarazten ditu.

Bake eta lasaitasun handia transmititzen duen lekua da.

Basilikaren atzealdean,

Lucio Muñoz margolari

eta eskultoreak egurrez egindako


erretaula bat dago.

Basilikako leihoek

koloretako **beirateak** dituzte.

Erretaula:

Erretaula, irudi erlijiosoak dituen egurrezko estruktura da.



Beiratea



4 Kripta

Kripta, basilikako zoruaren
azpian dagoen gela bat da.
Kriptan mezak egiten dira
edo pertsona garrantzitsuak lurperatzen dira.
Arantzazuko kriptan ez dago inor lurperatuta.

Kriptako hormak
18 horma-irudi apainduta daude.
Horma-irudi hauek
Nestor Basterretxea artistak egin ditu.
Kriptako obra 1952an hasi zen.
1984an amaitu zen.
Gaur egun dagoen artelan artistikoa
50eko hamarkadan egindakoaren desberdina da.
Kripta ez da irisgarria gurpil-aulkientzat.



5 Parke Naturalaren Interpretazio Zentroa

Parke Naturalaren Interpretazio Zentroari.

Parquetxea ere esaten zaio euskeraz.

Zentro honek bisitariei harrera egiten die
eta inguruko ezaugarri
garrantzitsuenak ezagutzera ematen ditu.

Adibidez:

- Formazio karstikoak.

Formazio karstiko bat,
elkarrekin erliebe bat sortzen duten
harri multzo bat da.

- Zuhaitz lepatuak.

Goiko adarrak mozten zaizkien zuhaitzak dira,
berriak hazteko eta, horrela,
zuhaitz osoa moztu gabe egurra lortzeko.

Teknika hau oso ohikoa zen Euskal Herrian.

- Edo abeltzaintza-guneak, besteak beste.



6 Misterioa

Arantzazuko basilikaren
eta Gandiaga Topagunearen artean,
Misterioa eraikina dago.
Eraikin honek Misterioa du izena,
Jorge Oteizaren obra batengatik.
Jorge Oteizaren eskulturak
Jesus Haurra besoetan duen
Ama Birjina erakusten duen
fraide bat irudikatzen du.

Misterioa isilik egoteko, pentsatzeko
eta bakea sentitzeko leku bat da.

Misterioa eraikina
hainbat bidek lotzen dute
Basilikarekin eta ingurune kulturalarekin.



7 Gomiztegiko bide irisgarria

Bide batek Arantzazuko Santutegia

eta artzain eskola lotzen ditu.

Artzain eskola Gomiztegi baserrian dago.

Bidea irisgarria da

mugikortasun urriko pertsonentzat.





MUPentzako aparkalekua.

MUPko 6 aparkaleku daude.

MUP siglek mugikortasun urriko pertsona esan nahi dute.



Igogailua.

Igogailu irisgarri bat dago.

Basilikaren barrualdera jaisteko.



Komunak.

MUPentzako komun irisgarri bat dago turismo-bulegoaren barruan.



Bideak.

Gomiztegiko baserritik bide unibertsal bat dago.

Lan prozesua:

ErrazTEA irisgarritasun kognitiboko lantaldeak

erraz irakurtzeko egokitu du dokumentu hau.

ErrazTEA Bizkaiko Apnabi Autismoaren parte da.

ErrazTEAren baliozkotzaile-talde batek

baliozkotu du irakurketa errazerako egokitzapena.

Desgaitasun intelektualak, autismoa

edo ulertzeko zailtasunak dituzten

pertsonek ostutzen dituzte baliozkotze-taldeak.

